

13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a

8. ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK IBILGETU, EREMU PUBLIKOTIK KENDU ETA ONDOTIK ZAINTEKO ZERBITZUAREN ESKUBIDEAK ETA TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zergapeko egintza da Udaltzaingoko agenteek ibilgailua ibilgetzeko zerbitzuak egitea, beren eskura duten baliabideen arabera egiaztatzen dutenean ibilgailuak ez duela nahitaezko aseguruua, baita ibilgailuak kentzekoak ere, dela hasia dela osoa, kasuan kasuko udal zerbitzuen bitartez, eta, ondorioz, ibilgailua gordetzekoak, interesdunari itzuli arte.

3. artikulua. Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

1. Behar den baimena duten kabalkada, desfile, segizio, kirol-saio edo bertze jarduera nabarmenen bat eginen den ibilbidean aparkaturik egoteagatik kentzen diren ibilgailuak.

2. Aparkaturik egonik, eremu publikoa konpontzea edo garbitzea eragozten dutelako kentzen diren ibilgailuak.

3. Jabeei ebatsirik eremu publikotik kentzen diren ibilgailuak. Jabeak, horretarako, lapurreta salaketaren kopia aurkeztu beharko du.

4. Ibilgetutako ibilgailuak, egiaztatzen denean indarrean zutela nahitaezko aseguruua ibilgailua ibilgetu baino lehen.

5. Udaltzaingoak ibilgailua altxatua dela jakinarazten duen unetik sortuko dira "Altxatoki zerbitzuko kuotetan" ezarritako kuota arruntak.

ZERGA ORDAINDU BEHARRA ETA TASAREN SORRARAZPENA

4. artikulua. Zerga ordaindu beharra zerbitzu osoa egitean edo egiten hastean sorraraziko da, eta une berean ere izanen du sorrarazpena ibilgailua kentzeko tasak.

5. artikulua. Ibilgailua kendu eta 24 ordu iraganik izanen du sorrarazpena ibilgailua altxatzeko tasak.

SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua. Indarra duen legezko araudian xedatutakoari jarraikiz, ibilgailuaren gidariak ordaindu beharko du tasa, eta subsidiarioki ibilgailuaren titularrak.

KARGA-OINARRIA

7. artikulua. Ibilgetu, kendu edo altxatu den ibilgailu bakoitza da karga-oinarria.

SALBUESPENAK

8. artikulua. Lege nahiz erregelamenduetako xedapenek hala aginduta nahitaez aplikatu beharreko salbuespenak baizik ez dira onartuko.

TARIFAK

9. artikulua. Ibilgailuak kentzeagatik, edo kentzen hasteagatik, eta altxatzeagatik aplikatu beharreko tarifak ordenantza honetako eranskinean daude ezarrita.

TRIBUTUAREN KUDEAKETA

10. artikulua. Ordainarazpen honen diru-bilketarako arau berezitako, zerbitzu honek sortuko dituen tasak Udaltzaingoaren diru-bilketa zerbitzuetan ordainduko direla ezarri da. Udaltzainek, ordainketa frogatzeko, behar den ordainagiriak edo tributu efektuak luzatuko dituzte.

11. artikulua. Kendutako ibilgailua ez zaio jabeari itzuliko hura kendu eta altxatzeak sortu dituen eskubideak ordaindu arte.

12. artikulua. Tasa honen likidazioa ordaintzeak ez du kentzen inolaz ere zirkulazio arauak hausteagatik bertzelde izan daitezkeen zehapen edo isunak pagatu beharrik.

JABEEK ERAMAN GABEKO IBILGAILUAK

13. artikulua. Udalak bere altxatokitian dauzkan ibilgailuak esleituko ditu, eremu publikoan abandonatutako nahiz aparkatutako ibilgailuei buruzko 1965eko ekainaren 15eko eta 1967ko martxoaren 8ko Aginduetan ezarritakoari jarraikiz, baita ibilgailu abandonatuak eremu publikotik kendu eta altxatzeari buruzko 1974ko otsailaren 14ko Aginduan ere.

2020KO TARIFEN ERANSKINA - 152. NAON ARGITARATUA 2020KO UZTAILAREN 13A

Ibilgailuak kentzeko zerbitzuaren kuotak

Kendutako ibilgailuen titularrei eskatuko zaizkien eskubideak honako zenbateko hauetakoak izanen dira:

1) 2.500 kg arteko ibilgailuak	82,15
2) 2500 eta 5.000 kg arteko ibilgailuak	134,15
3) 5.000 kg-tik gorako ibilgailuak	240,00
Ziklomotorrak kentzen direnean, Udalaren beraren bitartekoak erabiliz egiten bada, tarifa hau sorraraziko da	48,60
Bizikletak nahiz zikloak kentzen direnean, Udalaren beraren bitartekoak erabiliz egiten bada, tarifa hau sorraraziko da	25,00

Zerbitzua egitera etorri eta ibilgailua udal gordailuetara eramateko lanak hasiak direlarik, gidaria edo pertsona baimendua agertzeagatik eta erregelamenduaren arabera neurri zuzentzaileak hartzeagatik lan hori burutzen ahal ez bada, aurreko tarifak %50 murriztuko dira

Ibilgailuak gordailuan izateko zerbitzuaren kuotak

Ibilgailua gordailura eraman eta jakinarazi ondoren, inork hartu gabe 24 ordu pasatzen direnean, tarifa hauek aplikatuko dira zaintzeagatik, egun edo zati bakoitzeko, hura norbaitek bildu arte:

1) Bizikletak nahiz zikloak	1,00
2) Ziklomotorrak eta motozikletak	3,35
3) 2.500 kg arteko ibilgailuak	7,60
4) 2.500 kg-tik gorako ibilgailuak	17,20
Egonaldiko 4. egunetik aurrera, aipatutako kuotak %25 handituko dira Kuota hauek udal tasatzat hartzen dira eta premiamendu bidez kobratzen ahalko dira Eranskin honetan aipatzen diren eskalak, kilogramotan adierazten direnak, ibilgailuendako baimendutako gehieneko masari dagozkio Ibilgailuak ibilgetzeko zerbitzuaren kuotak Udaltzain-agenteei ibilgailua ibilgetzea ezarritako gailuarekin	30,30
Ibilgetzearen berri ematen denetik iragaten den egun natural bakoitzeko, lehen eguna kenduta	5,05